

Noraino heldu nahi dugu? Nola planifikatuko dugu hori?
Etorkizuna denon artean eraikiz eta arlo guztien arteko
loturak sortuz. Elkarrizketen, inkesten eta talde dinamiken
bitartez parte hartuz.

PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020



ZERGATIK ORAIN?

Zergatik gaude hemen?
Zein da gure abiapuntua?



Energia eta ideia berriak
edukitzeko unea heldu da



Prozesu parte
hartzaile batekin



Enpresa honen kide izateaz
harro izanez

Aurkibidea

01	Nortzuk gara...	05
02	Zergatik plan estrategiko bat?	08
03	Abiapuntua (AMIA)	10
04	Zergatik gaude hemen?	12
05	Noraino helduko gara?	13
06	Printzipio estrategikoak	14
07	Nola egingo dugu aurrera?	15
08	Ekintza planak, mugarriak eta xedeak	17
09	Nola egin dugu?	37
10	PEN, begirada batean	40
11	Eranskinak	42

1. Nortzuk gara...

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKP) barne dagoen enpresa bat gara. NEKP Nafarroako Gobernuaren erakundea da, eta Administrazio Publikoaren menpe dauden Erakunde, Sozietate eta entitate publikoen zerbitzura dago.

NASERTICen ditugun giza baliabide eta errekurtso tekniko eta ekonomikoei esker, sinergiak sortzeko eta kostuak jaisteko aukera daukagu. Hori dela eta, zerbitzu anitzak eskaintzen ditugu eta askotariko bezeroak ditugu, Administrazio publikoak, besteak beste. Ekimen ofizialek eskatzen duten konfidentzialtasuna bermatzeko neurriak ere eskaintzen ditugu.

2016ko azken hilabeteetan, NASERTICek bere antolakuntza era zerbitzuak berrantolatu zituen sinergiak berriz ere pentsatzeko eta baliabideak optimizatzeko helburuarekin.


NASERTICen gauzak egiteko modu berri batekin abiatu genuen 2017. urtea eta estrategikoak diren proiektuei aurre egiteko bide berriak jarri genituen martxan. Gure enpresaren oinarriak etorkizunean sendotzeko xedea daukagu. Ildo horretan gaude orain antolatuta; Hiru Ekintza Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritza bat dugu, eta horiek denak Zuzendaritza Orokorren menpe daude.



Gure antolakuntzaren oinarria **transbertsalitatea** da. 2011ko irailean gauzatu genuen bat-egite prozesuaren ondoren (NASERTIC, izan ere, NASERSA, OPNATEL eta PIN – zerbitzu horizontalak, telekomunikazioak eta informazio sistemak lantzen zituzten enpresen batuketaren ondorio da) zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa publikorik transbertsalena da gaur egun, bai Nafarroako Gobernuan eta Sozietate Publikoen arloan ere. Horren arrazoia eskaintzen ditugun zerbitzuen aniztasuna da. Honako hauek dira, halaber, gure bezeroei eskaintzen dizkiegun balio erantsi eta berezituak:

- ◆ Zerbitzu batzuetarako erabateko erabilgarritasuna (24 ordu x 365 egun),
- ◆ Diziplina anitzetatik proiektu konplexuak jorratzeko gaitasuna, eta
- ◆ Motibazio eta espezializazio handiko kalitatezko lantalde bat, baliabideen optimizazioa etengabe bilatzen duena.

Zein da gure abiapuntua? 2016ko abendua arte, gure enpresa bost negozio arlo ezberdinetan oinarritzen zen eta 2015ean bukatu zen Plan Estrategikoa hartu zuen ardatz. Plan hura ziurgabetasun handiko epe batean osatu genuen eta urte jakin batzuetarako prestatu zen (Plan Estrategiko horren betetze tasa % 80,46koa izan zen). Horrelakoa zen gure barne antolaketa:



Hauek dira epe hartako adierazleak, helburuen arabera sailkatuta:

Helburu estrategikoak	Betetze portzentajea
1.go Helburua: Administrazio publikoen erreferentziazko hornitzaile bilakatu azpiegitura teknologikoen alorrean; horrela, Teknologia, Berrikuntza eta Informazio Zuzendaritza babestuz	
Lotura duten ekintza planak	
Nafarroako tokiko Administrazioekin akordioak	%60,00
Modu estrategikoan posizio hartzeko lagungarriak izan daitezkeen eragile guztiak identifikatu	%100,00
Komunikazio Elektronikokoak sustatzeko akordioak proposatu	%40,00
Beste Autonomia Erkidegoetan eman diren arrakasta kasuak indertifikatu eta aztertu	%100,00
Teknologia, Berrikuntza eta Informazio Zuzendaritzarekin bateraketa sustatu eta estrategia komuna sortu	%40,00
Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza bultzatzeko arloak identifikatu	%100,00
Eragile gisa gure burua ezarri	%40,00
2. Helburua: Kalitatea, zerbitzua eta entrega bikaainaren ondorioz, bezeroaren asetzea lortzea	
Lotura duten ekintza planak	
Nafarroako Gobernuko Departamentu, Erakunde autonomo eta Sozietate Publikoekin bilerak egin eskaintzen ditugun edta eskaini ditzakegun zerbitzu guztiak joera berriekin bat egin dezaten	%100,00
Zerbitzu guztiei dagozkien asetze inkestak egin, negozio lerroaren eta bezeroaren arabera sailkatuta	%100,00
NASERTICen Aginte Koadro Integrala (AKI) osatu	%35,00
Lehiakideen inguruaren benchmarking-a egin (prezioak, zerbitzuen kalitatea...) eta non eta nola posizionatu gaitezkeen ikertu	%60,00
3. Helburua: Nafarroako IKT Sektorea sendotzen eta zabaltzen lagundu, eta konfidantza sortu	
Lotura duten ekintza planak	
Nafarroako IKT Sektorea zabaltzeko eta indartu	%100,00
Eragile potentzialak identifikatu eta haiekin harremanetan jarri etorkizunean kolaborazio akordio bat sinatze aldera	%100,00
Komunikazio eta Off eta On line Maarketing Plan bat desinatu	%100,00
Sektoreari lotuta dauden ekimen nazional eta tokikoetan parte hartzea	%100,00
4. Helburua: NASERTIC orokorreko ISO ziurtagiriaren irismena zabaltzeko eta NEKPko enpresak lagundu ziurtagiri horiek eskuratu ditzaten	
Lotura duten ekintza planak	
Ziurtagiriak Zabalatzeko Plana sortu eta betearazi	%80,00
Enpresen artean ISO errentagarri egiteko barne eta kanpoko moduen inguruan informatu eta sentsibilizatu	%70,00
5. Helburua: Enpresa kultura sortu eskaintzen ditugun zerbitzuei egokitutako politika, neurri, metodologia eta tresnak ezarri eta gure enpresari lotutako marka sendoaren irudia kanpora proiektatuz	
Lotura duten ekintza planak	
Kudeaketarako erreminta eta plataforma bateratuak ezarri	%70,00
Lantalde lana sustatu	%70,00
Osasuna, Segurtasuna eta Ingurumenari lotutako praktika onak etengabe hobetu	%80,00
6. Helburua : Gardentasunari, parte hartzeari eta kolaborazioari lotutako printzipioak bultzatu barne eta kanpo eragile guztiekin	
Lotura duten ekintza planak	
NASERTICerako Barne Komunikazio Plan bat diseinatu	%100,00
Enpresaren profiletara egokitzen den Formakuntza Plana sortu	%100,00
7. Helburua: Produktibitatea hobetu gastua kontrolatzeko barne eta kanpo politika berriak sortuz eta, horrela, enpresaren hazkundera eta onurak sustatuz	
Lotura duten ekintza planak	
Enpresaren Barne Gastuen kontrola	%100,00
Enpresaren Kanpo Gastuen kontrola	%100,00
Etekinen hazkundera	%66,60
Guztira	
Betetze portzentajea	%80,46

2. Zergatik orain?

NASERTICen jarduera testuingurua etengabe ari da aldatzen. Aldaketa horietako batzuk ezin dira saihestu, esate baterako: joera teknologikoak, legeak, politikak, etab. Hala ere, beste aldaketa batzuk gure sorkuntza esfortzuarekin lotuta daude, bezeroari begira sortutako kultura korporatiboaren garapena, adibidez. Sortu dugun planteamendu estrategikoaren prozesu honek bi aldaketa mota horiek hartzen ditu kontuan, alegia, saihestu ezin ditugun aldaketak eta sorkuntzari lotuta daudenak.

Inork ez du zalantzan jartzen gaur egun hartzen ditugun erabakiak neurtu behar ditugula, eta etorkizunean izan dezaketen inpaktua kontuan izan behar dela hartzen ditugun erabaki guztietan. Horrenbestez, irudikatzeko prozesu honetan oinarrizko bi galdera egin dizkiogu geure buruari:

1.- Zeintzuk izango dira gure sektorearen baitan datozen urteetan gertatuko diren aldaketa nagusiak?

2.- Zein da NASERTICek beteko duen edo bete dezakeen rola etorkizuneko testuinguru berri horietan?

Ariketa hori hainbat helbururekin egin dugu:

Antolaketa sendotzeko: langile guztien parte hartzea nahi dugu, modu horretan langileen kolaborazioa sustatzeko eta orain dela sei urte hasitako bateratze prozesuan sakontzeko.

Antolaketaren indarguneak bultzatzeko: helburua da gure zerbitzuetan inplikatura dauden guztiek gaur egungo eta etorkizuneko garapenean parte hartzea. Ekoizpen eta balorazio prozesuetan parte hartzea nahi dugu, arazoak eta aukerak identifikatzen laguntzeko.

Etorkizuneko estrategiak: prozesu honek "etenaldi" bat egitera "behartu" gaitu, horrela, erakunde bezala gure burua aztertze eta gure etorkizuna nolako izango den ikertze. Orain egin dugu, etorkizunean hainbat gauza behar ditugulako:

- ◆ Perspektibaren bitartez irudi osoa ikusi, printzipio estrategikoak identifikatu eta egunero egiten ditugun ekintzak gure helburua lortzeko lagungarriak izan daitezen lortu.
- ◆ Aldi berean, egunerokotasunean eta etorkizunean begirada finkatu.
- ◆ Ikuspegi, helburu eta estrategien printzipioak indartu.
- ◆ Arloen arteko komunikazioa sustatu.
- ◆ Baliabideen erabileran lehentasunak finkatu.
- ◆ NASERTICen bidea modu efektiboan kokatu eta bultzatu, zuzendaritzaren eta lidargoaren ekintza berritzailea sustatuz eta testuinguruaren aldaketak aztertuz; azken finean, etorkizuneko aukerak eta mehatxuak ikertuz.

- ◆ Kudeaketa hobetzeko plangintza estrategikoa garatu, giza baliabideak eta materialak modu eraginkorrean erabiltzeko eta langileen efikazia eta bizitza eta lan kalitatea hobetzeko.
- ◆ Esfortzu eta aurreikuspen kolektiboak bateratu.
- ◆ Arloetako prozesuak optimizatu eta emaitzak lorpen sinergikoetara eraman.
- ◆ Analisisan sakondu eta, beharrezkoa izanez gero, denboran mantentzen diren **balore korporatiboak** hobeto irudikatu:



3. Abiapuntua (AMIA)

Enpresa baten AMIA analisiaren bitartez, eragile horren bideragarritasuna eta funtzionamendua neurtzen da modu soil eta eraginkor batean. Enpresa metodologia horren bitartez, gurea bezalako proiektu baten indargune eta ahulguneak ezagutzeko aukera daukagu.

AMIA matrizea NASERTICen aplikatzearen helburua hartuko ditugun erabaki estrategikoak modu eraginkorrean garatzea da, etorkizuneko prozesuak eta ekoizpena hobetzeko xedearekin. Matrize horrek gure merkatuan sortzen diren aukera eta mehatxuak identifikatzen laguntzen du, eta gure enpresak dituen indargune eta ahulguneak aztertzeke baliogarria da.


Enpresaren **kanpo azterketaren** baitan, gure enpresaren kanpo faktore gakoak identifikatzen dira. Esate baterako, bezeroen joera berriak, lehiakideak, eta merkatua, teknologian edota ekonomian eman daitezkeen aldaketak.

Faktore horiek berebiziko arreta eskatzen dute, NASERTICen kontrolpetik kanpo baitaude eta gure garapenean zuzenean eragiten baitute. AMIA analisi guztietan bezala, kanpo azterketa **aukera eta mehatxueta**n banatu dugu.

NASERTICen **barne analisiaren** baitan, berriz, gure enpresako barruko faktore klabeak identifikatu ditugu, adibidez, finantzaketa, ekoizpena, marketing-a eta antolaketarekin lotura daukaten faktoreak. Azken finean, prozesua autoebaluzio bat osatzean datza, enpresako alde indartsuak eta ahulak identifikatuz.



Matrizea gure langile guztien artean, Administrazio Kontseiluarekin eta euren ikuspen estrategikoarengatik hautatu ditugun bezero batzuen artean egindako inkesta baten ondorioa da. Galderak argiak eta zuzenak izan ziren, eta erantzunak ere zehatzak izan ziren, hain justu, NASERTICen ahulezien, mehatxuen, indarguneen eta aukeren ingurukoak. Hau da matrizearen laburpena:



4. Zergatik gaude hemen?

Gure misioaren bitartez merkatuan daukagun jarduera eta zereginak zehazten ditugu. Misioa gure bezeroen beharren arabera eraiki dugu, gure jardueraren berezitasunak kontuan hartuz.

NASERTICen misioa definitzeko ondorengo galderei erantzun diegu:

- ◆ Zer egiten dugu?
- ◆ Zein da gure negozioa? Zein da gure eginkizuna?
- ◆ Zertarako gaude hemen? Zein da gure izaera?
- ◆ Zein da gure publiko objetiboa?
- ◆ Zein da gure jardueraren eremu geografikoa?
- ◆ Zein da gure abantaila lehiakorra? Zerk ezberdintzen gaitu?

MISIOA

AZPIEGITURAK, TEKNOLOGIAK ETA ZERBITZUAK
SEKTORE PUBLIKOTIK HOBETU NAFARROAKO
GIZARTEAREN GARAPENEAN
LAGUNTZEKO

NASERTICek BATERATZE PROZESUAN ekarpena egiten du; azpiegituren, teknologien eta zerbitzuen batuketa edota konbinazioa egiten baitu (horixe da gure eginkizuna).


Nafarroako Gobernuarentzat eta beste sozietate edo instituzio/erakunde publikoentzat lan egiten dugu, betiere finantzazio publikoa duten erakundeentzat (enpresa publiko eta instrumentala gara). Era berean, gure enpresaren bidez (Nafarroako Gobernuak eskatuta edo guk geuk sortzen ditugun, parte hartzen dugun edo egiten ditugun proiektuen bidez) helburu zabalago batean ere egiten digu ekarpena: Nafarroako gizartearen garapenean.

5. Noraino helduko gara?

Clnpcq_pcl gisqnceg_i cnc j_`sppc\_l jmprs l\_fg bgrsesl fcj`sp_s_i dgli_rxc_l bgrs* 0.0.c_l, Vcbc fmpgci cqisp_e_ppg_i bgp_* gisqnceg_pcl nmnmq_kcl_ mgl_ppg glqngp_rx_gjc cr_ kmrg`\_rx\_gjc\_`_gr_si_, NASERTICci gisqnceg_bcdg_lgrxcim* mlbmplcm e_jbpcg cp_lrxsl bgces8

- ◆ Xcp jmprs l_fg bses=
- ◆ Lml ceml l_fg bses fgps sprc`_pps=
- ◆ Lmpclrx_im ceglcl bses=
- ◆ Espc h_pbscp_cpc ks_x_`_jbsim bses=

IKUSPEGIA



Cp`\_gjc bsesl \_bgcp\_ \_sppcp\_ cegl gx\_l`_b_* hutsetik`\_g\_rxc\_l cx e\_pcj\_im b\_, lx\_l cpc\* NASERTICci clnpcq\_fgqmpg\_jsxc\_bs\_rxc\_l cr\_fmpg cqicp e\_sbc e\_sp egun fckcl, Mp\_gl\_prc`_cx_j_* crmpigxslc_l cpc* mp_gl bcj_gim bgrsesl`\_cxcpmci cr\_xicl fgj`_crccr_l ecfgs x_gxigesl`\_cxcpmci bgmrcl\_pg clrxscl h\_pp\_gsim bgmes, Kmbs`_cpc_l* crmpigxslc_l gz_l bgrx_icesl`\_cxcpm fmpgci bgmrcl\_cpc clrxslem bses, G\_sp ceslem cr\_crmpigxslcim xcp`_grxscl hmcp_* gx_l cpc* ncprqml_jgx_rs_ gx_l`\_cf\_p bscj\_ \_peg b\_si\_escr\_, fmpg bcj\_cr\_\* cqi\_cp\_mpmimpp\_i nrmgcirs`_cpcgzgr_l sailkatzen bgrses,

NASERTICen bezeroa gure ekintzen erdigunean jartzen dugu eta gure jarduera bezeroa oinarri hartuta eraikitzen da. Barne antolamenduaren aldetik, bateratuta gaude (jardueta estanko eta ekintza unitate independenteen irudia ez dugu proiektatuko) eta bezeroak erabakitzen duenari erantzuteko gure eskura dauden tresna eta teknologia guztiak erabiliko ditugu konponbide onena aurkitzeko eta bezeroak informazio guztia eduki dezan. Gure balioa errentagarri egiteko asmoz, gure ezagutza eta espezializazio ahalmen guztia erabiliko dugu.

Gure balioa handitzeko xedea aipatzen dugunean ez dugu bakarrik esan nahi balio ekonomikoa handitu nahi dugula. Enpresa publikoa garen heinean, sektore publikoan jarduten dugu eta enpresa irizpideak profesionaltasunaren eta produktibitatearen alorrean kokatzen ditugu. Horrekin ez dugu esan nahi sektore pribatuarekin lehian egon behar dugunik, hori ez baita gure izateko arrazoia; gure helburua, ahal dugun neurrian, sektore pribatua osatzea baita, sektore pribatuko eragileek zerbitzuak iritsi ezin daitezkeen tokietara gure jarduera eramanez.

Gure helburua ezagutzaren errentagarritasuna bultzatzea da, espezializazioa eta eskarmentua sustatuz eta Nafarroako Gobernuaren eta gizartearen artean loturak sortuz. Horretarako, ikuspegi zabal eta malgua daukagu, datozen hiru urteetan aurrera egiten lagunduko digun ikuspegi irekia.


6. Printzipio estrategikoak

Gure misioa eta ikuspegia xehetasun handiz aztertu eta gero, gure jarduera 2020. urtea arte gidatuko duten Plan Estrategiko honen oinarriak osatu ditugu.

XrXI. mendeko edozein enpresak bezalaxe, gure estrategiaren eta enpresaren erdigunean pertsonak eta talentuaren garapena kokatzen ditugu. Gaur egun garena baldin bagara, NASERTICek kanpora begira irudi egonkor eta indartsua duelako da, bere langileek espezializazio eta ezagutza handia baitute. Eta ezaugarri horrek gure alorrean nabarmentzen gaitu. Gainera, iraganeko hiru enpresa publikoen batuketaren ondorio izateak esan nahi du hobetzeko marjina badugula: lehengo kudeaketa moduak aldatu eta hobetu behar ditugu, enpresa bakoitza modu ezberdin batean baitzegoen merkatuan. NASERTICen dauden profesional guztien garapena jorratuko dugu **bateratze** prozesu horretan sakonduz: batuketa hori modu efektibo eta afektiboan egiten dugu, enpresaren barne eta kanpo maila guztietan eraginez.

Testuinguru horretan, halaber, pauso bat harago emanen dugu, gure bezeroendako balioa handitzeko gure arteko elkarlanean eta gure arloen batuketan sakondu behar baitugu. Izan ere, diziplina anitzen jarduerak eta askotariko profilek ahalbidetzen dute proiektu ezberdinak azkar, egokitzapena sustatuz eta malgutasunez egitea. Modu horretan lortzen dugu zerbitzu berezituak eskaintzea, eskaeraren arabera egokitzen ditugun zerbitzuak, hain zuzen ere. Bezero bakoitzaren beharrei erantzuten diegu, gure ikuspegi irekiaren bidez teknologia aurreratuak erabiliz eta probatuz, eta gure espezializazioa eta ezagutza praktikan jarritz.

Gure balioaren errentagarritasuna transbertsalitate eta baliabideen optimizazio horretan oinarritzen dugu giza baliabideen alorrari (azkartasuna, malgutasuna, talentuaren garapena, etab.,) eta alor teknikoari dagokionez (espezializazioa, erabilpen adimentsua, ikuspegi irekia, etab.). Datozen hiru urteetan erabiliko ditugun kontzeptuak ondorengoan dira:



7. Nola egiten dugu aurrera?

Printzipio horiek oinarri hartuta, gure alorren sailkapen berria egin dugu etorkizunean erdietsi nahi ditugun helburuen arabera antolaketa berria osatuz. Aukerak identifikatzeko prozesuan alor ezberdinetako zenbait profesionalek parte hartu dugu, horrela, Plan Estrategikoari ikuspegi trasnbertsala emanez.



8. Ekintza planak, mugarriak eta xedeak

Behin identifikatu dugula zer egin behar dugun, nora joan nahi dugun eta zein punturaino aurreratu nahi dugun proiektua, orain prozesu hori nola gauzatu behar dugun aztertu behar dugu. Gure helburuak eta misioa erdiesteko xedearekin, ekimen nagusiei lehentasuna eman diegu.

Modu honetan, datozen lerroetan zehaztuko dugun ekintza plan bakoitza negozio aukeretan oinarritzen da eta diseinatu ditugun proiektu guztiei marko bera emateko gida gisa ulertu behar dira. NASERTICek modu globalean pentsatzen du eta tokian toki jarduten du, hori dela eta, hasiera bateko ekintza planak antolatu ditugu printzipio estrategikoak gauzatzeko.

Plan bakoitzak ekintzen oinarria osatzen laguntzen digu, ondoren, **bateratze** prozesuan, **zerbitzuen pertsonalizazioan**, **teknologia aurreratueta**n eta gure **balioa errentagarri** egiteko prozesuen diseinuan sakontzeko helburuarekin.



INTEGRAZIORANTZ



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

INTEGRAZIORANTZ. PERTSONAK - TALENTUA - DIZIPLINA ANITZAK

Xedearen deskribapena Proiektu bateratueta parte hartu diziplina anitzak sustatuz

Ekintza lerroak

- 1 Lan transbertsalak sustatu, proiektu berrietan egokitu daitezkenak barne
- 2 Proiektuak kudeatzeko pertsonak identifikatu eta formatu
- 3 Jardueren balio-aniztasuna handitu

Adierazleak

Abiapuntua	Proiektu bateratuak jarduera batzuetan existitzen dira. Adib.: Feagas: Laborategia+Banaketak
Mugarria 2017	Gutxienez bost pertsona identifikatu eta bereziki formatu proiektuak kudeatzeko
Mugarria 2018	Arloen arteko proiektu bat behintzat osatu (tamainak ez du garrantzirik)
Mugarria 2019	Arloen arteko proiektu bat behintzat osatu, zeinetan normalean elkarrekin ez dauden ekintza arloek parte hartuko duten
Mugarria 2020	Arloen arteko elkarlana dinamika orokortua da eta proiektuen transbertsaalitatea modu egonkorrean ematen da

Xedea: Diziplina anitzak NASERTICen DNA-n daude



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

INTEGRAZIORANTZ. PERTSONAK - TALENTUA - DIZIPLINA ANITZAK

Xedearen deskribapena Barne ezagutza transbertsala sustatu

Ekintza lerroak

- 1 Jardunaldi dibulгатiboak sustatu: enpresaren ezaugarri orokorre, proiektuei eta egoitzei buruz.
- 2 Barne bilerak sistematizatu jarriapena egiteko eta informatzeko.
- 3 Barne komunikazio bideak aztertu.
- 4 Langileen arukezpena enpresako intranetean barneratu.

Adierazleak

Abiapuntua Barne ezagutza transbertsalaren hobetzea.

Mugarria 2017 Bi bilera kontsolidatu barne ezagutzaren inguruan (NASERTIC Summit). Jarduera arlokako bilerak epeka antolatu.

Mugarria 2018 Langileen aurkezpena enpresako intranetean barneratu.

Mugarria 2019 Barne ezagutza transbertsala hobetzeko ideia lehiaketa.

Mugarria 2020 Aurreko urteko lehiaketaren ideia onenak ezarri.

Xedea NASERTICen barneratz integraztea. Langileak enpresaren parte sentitzea.

* Iturria: NASERTICen barne eta kanpoko Komunikazio Plana. Lotutako ekintzak.



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

INTEGRAZIORANTZ. PERTSONAK - TALENTUA - DIZIPLINA ANITZAK

Xedearen deskribapena Balio-aniztasuna sustatu. Diziiplina anitzak eta integrazioa barne formakuntzaren bidez.

Ekintza lerroak

- 1 Ezagutza kontzentrazioa aztertu arloka eta langileka.
- 2 Ohikoak diren jarduerak modu argi eta laburrean dokumentatu.
- 3 Arloen arteko formakuntza langileen artean.
- 4 Lantaldean jarduteko trebezieng inguruko formakuntza.

Adierazleak

Abiapuntua Balio-aniztasuna, ezagutza eta dokumentazioa hobetu.

Mugarria 2017 Balio-aniztasunaren matriza ikertu enpresaren maila orokorrean.

Mugarria 2018 Barne formakuntza garatzeko materialak berrikusi eta banatu.

Mugarria 2019 Balio-aniztasunaren inguruko analisisian identifikatutako hobekuntzak ezarri. Barne formakuntzaren jarduerak zabaldu.

Mugarria 2020 Balio-aniztasunaren inguruko analisisian identifikatutako hobekuntzak ezarri. Barne formakuntzaren jarduerak gehiago zabaldu.

Xedea NASERTICen ezagutza aniztasuna errentagarri egin.



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK
INTEGRAZIORANTZ. PERTSONAK - TALENTUA - DIZIPLINA ANITZAK

Xedearen deskribapena Motibazioa eta parte hartzea sustatu.

Ekintza lerroak

- 1 Malgutasuna hobetzeko formulak aztertu eta konpetentzien arabeko profilak sortu.
- 2 Helburuen arabeko hobekuntzen azterketa, motibazio aspektu ezagutza barneratuz.
- 3 Barne mapa potentziala eta etorkizuneko beharrak.
- 4 Langileen mapa garatzeko plana ezarri.
- 5 Lan giroa neurtzeko sistema ezarri.

Adierazleak

Abiapuntua	Motibazioa eta parte hartzea sustatzeko beharra. Gaur egun ekimen isolatuak daude.
Mugarria 2017	Ekintza lerroen ardura hartuko duen lantaldea osatu.
Mugarria 2018	Lan giroa neurtzeko sistema ezarri. Plan edo sistema hori ezartzeko neurriak erabaki eta aurrera eraman.
Mugarria 2019	Ekintzen jarraipena eta akatsen zuzenketa.
Mugarria 2020	NASERTICEko langileen garapen pertsonala garatzeko plana.
Xedea	Motibazioa, parte hartzea, erakartzea eta talentua bertan garatzeko etengabeko plana.



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK
INTEGRAZIORANTZ. PERTSONAK - TALENTUA - DIZIPLINA ANITZAK

Xedearen deskribapena Beste sozietate publikoekin kolaborazioa diziplina-arteko ezagutzaren irismena zabaltzeko.

Ekintza lerroak

- 1 Sozietate publikoen zerbitzuak sakonki ezagutu.
- 2 Zerbitzu osagarrien aukerak ikertu.
- 3 Elkarrekin egindako proiektuen proposamena, gutxienez beste sozietate publiko batekin.

Adierazleak

Abiapuntua	Sozietate publikoekin harremana bezero-hornitzale erduan.
Mugarria 2017	NEKPeke beste ordezkari batzuekin bilerak.
Mugarria 2018	Gutxienez, elkarrekin egiteko bi proiektu berrien proposamena.
Mugarria 2019	Gutxienez, elkarrekin egindako proiektu bat.
Mugarria 2020	Gutxienez, elkarrekin egindako proiektu bat.
Xedea	Ikuspegi bateratuaren ideia efektibo egin.

ZERBITZU PERTSONALIZATUAK



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

ZERBITZU PERTSONALIZATUAK. AZKARTASUNA- EGOKITZAPENA- MALGUTASUNA

Xedearen deskribapena Bezeroarekin harremana efektiboagoa egin.

Ekintza lerroak

- 1 Entzumen aktiboa sustatu.
- 2 Bezeroei inkestak egin.
- 3 Bezeroaren beharrei egokitutako harrera puntua sortu (Multicanal: web, posta, etab.)
- 4 Zerbitzuen portfolio eguneratua (zer, nola, noiz... eta zenbat)
- 5 Bezeroa formatu zerbitzu posibleen inguruan.

Adierazleak Bezeroaren balorazioa 1-10

Abiapuntua 7,5

Xedea 8,6

Urtea	2017	2018	2019	2020
Bezeroa bisitatu				
Bezeroen artean inkestak				
Kanal anitzen sarbidea sortu				
Portfolioa eguneratu				
Bezeroa formatu				



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

ZERBITZU PERTSONALIZATUAK. AZKARTASUNA- EGOKITZAPENA- MALGUTASUNA

Xedearen deskribapena Negozioa garatzeko taldea sortu

Ekintza lerroak

- 1 Gaur egungo zerbitzuen mapa sortu
- 2 Zerbitzu pertsonalizatuen plana diseinatu
- 3 Bezeroei aurkezpen pertsonalizatuak
- 4 Eskainitako zerbitzuen jarraipena

Adierazleak Zerbitzu pertsonalizatuen zenbakia

Abiapuntua Ez daukagu informazio bateratua eta batzuetan datuak ez daude estandarizatuak

Xedea Negozioa garatzeko talde egonkorra sortu. Bezeroa jardueraren erdigunean jarri

Urtea	2017	2018	2019	2020
Zerbitzu pertsonalen mapa				
Planen disenua				
Aurkezpenak				
Zerbitzuen jarraipena				
Bezeroa formatu				



TEKNOLOGIA AURRERATUAK



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

TEKNOLOGIA AURRERATUAK- IDENTIFIKAZIOA (IKUSPEGI IREKIA)

Xedearen deskribapena Merkatuan dauden joera berriak ezagutu.

Ekintza lerroak

- 1 Eragile ezberdinekin networking-a sustatu.
- 2 Negozioa garatzeko taldearen ekintzak osatu.
- 3 Etorkizuneko teknologia eta zerbitzu eskaintzaren kultura sustatu.
- 4 Azpiegitura proiektuetan inbertitu.

Adierazleak

Abiapuntua Sistematizatu gabeko jarraipen estrategikoa.

Xedea NASERTICEk ikuspegi irekiaren filosofia ezarri.

Urtea	2017	2018	2019	2020
Networking-a zabaldu				
Garapen taldea				
Kultura sustatu				
Jarraipena sistematizatu				



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

TEKNOLOGIA AURRERATUAK- HARTU , EMAN ETA ZABLDU

Xedearen deskribapena Etengabeko berrikuntza balioa sortzen duten konpetentzia teknologikoetan.

Ekintza lerroak

- 1 Informazioa eta ezagutza transbertsalizatu.
- 2 Prozesuak sinplifikatu eta bezeroekin integrazioa sustatu teknologiaren bitartez.
- 3 Joera berrien barne integrazioa/horien aplikazio zuzena garatzeko produktu berriak.
- 4 Teknologia aurreratuetan inbertsioa eta garapena.

Adierazleak Joera berriekin sortutako proiektu berriak

Abiapuntua Proiektu isolatuak soilik egiten dira eta arlo batzuetan bakarrik.

Mugarria 2017 Dokumentazio estandarizatua eta erraz eskuratzekoa.

Mugarria 2018 Laborategi ingurumena sortu (ikerketa eta hobekuntza).

Mugarria 2019 Laborategitik sortutako edo teknologia aurreratuan oinarritutako proiektu bat garatu.

Mugarria 2020 Laborategitik sortutako edo teknologia aurreratuan oinarritutako proiektu bat garatu.

Xedea. Gure balio teknologikoa errentagarri egiteko gai izan.



GURE BALIOA ERRENTAGARRI EGIN



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

GURE BALIOA ERRENTAGARRI EGIN. OPTIMIZAZIOA - TRANSBERSALITATEA

Xedearen deskribapena NASERTIC enpresa dinamiko baten gisa proiektatu.

Ekintza lerroak

- 1 Etorkizuneko interes taldeak.
- 2 Gure gisako elkarte eta enprekin loturak egin maila nazionalean eta nazioarte mailan.
- 3 Gure intereseko foro eta erabakitze erakundeetan parte hartzea.

Adierazleak

Abiapuntua Unired, Beriáin Taldea, ATANA eta AUTELSI taldeetan parte hartu.

Mugarria 2017 Elkarte eta taldeetan parte hartzeko estrategia planifikatu.

Mugarria 2018 Talde eta elkarteetan parte hartzeko estrategia berriz ere formulatu.

Mugarria 2019 Bilera eta lantaldeetan parte hartu.

Mugarria 2020 Bilera eta lantaldeetan parte hartu.

Xedea Gure enpresaren balioa sektoreko taldeek ezagutzea.



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

GURE BALIOA ERRENTAGARRI EGIN. OPTIMIZAZIOA - TRANSBERSALITATEA

Xedearen deskribapena Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza gure egunerokotasunean sartu.

Ekintza lerroak

- 1 Enpresaren interes eta helburuen azterketa eta proiektuak horietan oinarritu.
- 2 Bazkide potentzialak bilatu.
- 3 Sareak identifikatu.
- 4 Europako Batasunean eta Estatuko erakundeetan posizionatu.
- 5 I+G+b proiektuetan parte hartu eta laborategi pilotu bezala aurkeztu.
- 6 I+G+b proiektuetan bazkide gisa parte hartu.

Adierazleak

Abiapuntua NAGEN proiektuan bazkide.

Mugarria 2017 Interes eta helburuen ikerketa, bazkideak bilatu eta sareak identifikatu.

Mugarria 2018 Nafarroako Gobernuak Bruselako bulegoaren bidez Europako Batasunean parte hartu. Pilotu programa batean behintzat parte hartu.

Mugarria 2019 I+G+b proiektu batean behintzat parte hartu.

Mugarria 2020 I+G+b bi proiektutan behintzat parte hartu.

Xedea I+G+b jardueran sakondu.



NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK

GURE BALIOA ERRENTAGARRI EGIN. OPTIMIZAZIOA - TRANSBERTSALITATEA

Xedearen deskribapena Zerbitzu gakoetan eta azpiegitura estrategikoetan inbertsioa eta garapena.

Ekintza lerroak

- 1 Azpiegiturak eta ekipoak alokatu edo erosteko eredu ekonomiko errentagarriagoen estrategiak aztertu.
- 2 Azpiegitura gakoak konpartitzeko edo bateratzeko estrategiak bilatu.
- 3 Aukeren definizioa eta etengabeko bilaketa.
- 4 Azpiegitura proiektuetan inbertsioa.
- 5 Zerbitzuen posizionamenduan inbertsioa.

Adierazleak

Abiapuntua Telekomunikazioan eta Gobernu CPD zerbitzuetan posizionatu.

Mugarria 2017 Ereduen azterketa. Identifikatutako aukeren garapena (HPC, etab.)

Mugarria 2018 Etorkizuneko aukera bat behintzat identifikatu eta horren azterketa egin.


Mugarria 2019 Etorkizuneko aukera bat behintzat identifikatu eta horren azterketa egin.

Mugarria 2020 Etorkizuneko aukera bat behintzat identifikatu eta horren azterketa egin.

Xedea Erreferentziako bazkide eta etorkizuneko proiektuen sustatzaile nagusi bilakatu.



Aurretik aztertu ditugun planak ikertuz, lau bloke hauetan horizontaltasuna aurkitu genuen eta, gure ustez, horiek dira NASERTiCen funtsaren oinarria datozen hiru urteetarako (2017-2020):



Orokorretik zehaztasuneraa igaroz, NASERTICen arlo ezberdinetan agertzen diren testuinguruak zerrendatzen ditugu hemen.

Datozen hiru urteetan erronka garrantzitsuak izanen ditugu, eta oztopo ugari ere bai. Ikusi dugunez, zerbitzu eta proiektu berriak sortuko ditugu, barne antolaketa ren aldetik modu berrian lan egingen dugu eta gure egiteko moduetan batuketa izanen dugu ardatz, bezeroarentzako zerbitzuak eta kalitatea handituz. Kanpora begiratuko dugu beti, zerbitzu eta proiektu berriak sortzeko edota ezagutarazteko modu berriak bilatuz. NASERTIC ideien laborategi batean bilakatuko da.

Filosofia hori oinarri hartuta, proiektu zehatzetan estruktura hori bera gauzatuko dugu negozio aukera guztiak aztertu eta zabaltzeko.





NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK	
INF, SW & HW. IaaS - PaaS - SaaS Arloa	
Xedearen deskribapena	Software-aren kalitate sistema ezarri.
Ekintza lerroak	
1	Helburu eta estrategien definizioa (Banaketak eta Mainframe-en)
2	Software-aren kalitatearen taldea sailkatu.
3	Ezagutza bezeroen eta garatzaileen mesedean ezarri.
4	Balio erantsia duen zerbitzu berri hau sustatzeko ekintzak egin.
Adierazleak	Zerbitzu pertsonalizatuaren zenbakia.
Abiapuntua	Zerbitzu hau ez da gaur egun egiten.
Mugarria 2017	Eskainiko dugun zerbitzua zehaztu eta definitu testuinguru guztietan (Banaketak eta Mainframe)
Mugarria 2018	Bideragarritasun lerketa egiten du talde berriak.
Mugarria 2019	Zerbitzuaren formakuntza eta garapena.
Mugarria 2020	Zerbitzuaren jarraipena eta hobekuntza.
Xedea	Software-aren kalitate zerbitzua garatu eta indartu.

NASERTIC PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020. EKINTZA PLANAK	
INF, SW & HW. IaaS - PaaS - SaaS Arloa	
Xedearen deskribapena	Mainframe-aren erabilpena sustatu eta indartu.
Ekintza lerroak	
1	Mainframe-ean ezarri daitezkeen konponbideen analisia.
2	Etorkizuneko migrazioen bideragarritasun analisia.
3	Kostuen azterketa.
4	Konponbideen definizioa.
5	Konponbideak garatu.
